

El doble más quince

Mikel Rueda: “Begiradengandik libre sentitzea oso askatzailea da”

IRENE ELORZA

Mikel Rueda zuzendari bilbotarrak *Camín* film laburra erakutsi zuen 2016an Zabaltegi-Tabakaleran. Bi urte eta erdi geroago, proiektuari segida ematen dion bigarren fikzio-film luzearekin dator Zinemaldira. *El doble más quince* filmak Donostiako Koprodukzio Foroan aukeratu zuten 2017an, eta Malagako jaialdiko sail ofizialean lehiatu da aurtengoan. Zuzendariak atzo bertan jakinarazi zuenez, Maribel Verdú eta Germán Alcárazu aktoreen lana datorren otsailaren hasieran izango da ikusgai zinemaretoetan.

Ruedak aspaldiko asmo bat bete du film honekin: “*Camín* film laburra egin nuenean jada buruan nuen istorioa film luze batean kontatu nahi nuela; oinez dabilzan eta elkarri begietara begiratuta ezagutzen joaten diren pertsonaien inguruko film egin nahi nuen”. Labur hartan bezalaxe, Verdú eta Alcárazu aktoreengan konfiantza osoa jarri zuen zinemagileak. “Sekulako kimika dago beraien artean, orduak eta orduak eman ditugu elkarrekin hitz egiten eta entsegue-

tan, eta ondoren, inprobisatzen utzi ditut pertsonaiak maisutasunez erabiltzeko”, azaldu du Ruedak. Biek egiten duten interpretazio lana goraiatzeko du: “Germánen bigarren film egin da eta Maribelekin planoa partekatzen du film osoan zehar; Maribel interpretazioaren munstro bat da eta ez da erraza bere parean jartzea, baina lortu egin du”.

Internet bidez ezagutu diren emakume helduaren eta mutil nerabearen arteko harremanak da filmaren muina. Mundu zakar batean hauskor sentitzen diren bi pertsona ustez oso ezberdinen gerturatzearren lekuko da ikuslea. “Ana eta Erik dira filmak; beraiek eusten diote ehun minutuko kontakizunari; eta filmaren apustu bisuala ere hortik doa”, dio zuzendariak. “Inguruko mundua lausotuta agertzen da, fokutik kanpo”. Filmaren hasieran hoztasuna dena, berotasun eta argi bihurtzen da bukaera aldera, Anaren eta Eriken lotura estuagoa denean.

Bilboko hiriak laguntzen ditu pertsonaiak euren ibilbidean. “Askok albora utzi duten Bilbo hori, berritu eta erabat aldatu nahi duten hiri hori,



JORGE FUENBUENA

erakutsi nahi izan dut, erromantikoa eta oso ederra iruditzen zaidalako”, dio Mikel Ruedak, “filmak gu garenaz eta izan garenaz hitz egiten duelako. Nahiz eta leku hori zaharkitua edo zimeldua egon, ederra da zeren, azken finean, gu gara”.

Aurreiritzien gainetik

Lehen begiradan, bi pertsonaien arteko harremanean desoreka dagoela pentsa daitekeen arren, kontakizuna aurrera doan heinean gero eta argiago geratzen da berdin sentitzen direla eta horrek elkarrengana erakartzen dituela. “Ez dute zeri-zerikirik euren bizimoduetan baina, era berean, emozionalki bateratuta daude; adinean alde handia dute baina galdera berberak egiten dizkiete euren buruari”, adierazi du zinemagileak. “Gertatzen da; bat batean ezezagun bat aurkitzen duzu eta zu zaren bezalakoa agertzen zara bere aurrean, ez zara epaitua sentitzen eta zu izateko gai sentitzen zara”, dio Ruedak, “besteen begiradengandik libre sentitzea oso askatzailea da”.

Linklater-en *Antes del amanecer* edo De Sica-ren *Stazione Termini* filmekin gertatzen den bezala, protagonisten hizketaldiak dira filmaren oinarria. Ruedaren esanetan, “pertsonaiak oinez eta hizketan erakusten dituzten film ‘arraro’ horietako bat da hau; oinez doazenean elkar aurkitzen duten bi pertsonaien istorioa”.



Festival de cine de
San Sebastián
2019



LA HIJA DE UN LADRÓN
de Belén Funes

SECCIÓN OFICIAL EN COMPETICIÓN
29 de noviembre en cines



EMA
de Pablo Larraín

PERLAK
Próximamente en cines



MONOS
de Alejandro Landes

HORIZONTES LATINOS
Próximamente en cines



LA LUZ DE MI VIDA
de Casey Affleck

PERLAK
11 de octubre en cines



UNA GRAN MUJER (BEANPOLE)
de Kantemir Balagov

PERLAK
20 de diciembre en cines



NEMATOMA
de Ignas Jonynas

NEW DIRECTORS
Próximamente en cines



LA VIRGEN DE AGOSTO
de Jonás Trueba

MADE IN SPAIN
En cines desde el 15 de agosto